
SARA
ikusiMikusi
HAUR ETA GAZTE
LITERATURA AZOKA
Urriak 20 & 21
10h - 19h
2023
ikusimikusi.eus

# ZER DA IKUSI MIKUSI ?

IKUSI MIKUSI proiektua euskara hutsean den HAUR eta GAZTE LITERATURA AZOKA da. 2021-ean izan zen lehen edizioa. Aurten, hirugarren edizioa ospatuko dugu, SARA herrian, urriaren 20 eta 21-ean.

Azkenean IKUSI MIKUSIk euskarari, haur eta gazte literaturari premiazko tokia eskaintzen dio, Sara herrian, bi egunez : eskolen eta profesionalen eguna urriaren 20-ean, eta familien eguna urriaren 21-ean.

# ZENDAKO IKUSI MIKUSI ?

Euskal Haur eta Gazte Literaturari lehio berri bat zabaldu nahi dio IKUSI MIKUSIk. Ekitaldi hunek, gizartean dagoen eskas eta behar bat betetzen du.

Euskal herri osoko ikasleak eta profesionalak (eskolen eta profesionalen egunean), eta jendartea (familien egunean), elkartu nahi ditu, euskaraz den Haur eta Gazte Literaturaren inguruan : iparraldea, hegoaldea eta Nafarroa.

Ekitaldi hau guztiz aurre-ikusia, gogoetatua eta diseinatuta da haurrentzat, bai altzarien aldetik, espazioaren antolaketa aldetik, baita ere jarduerak eta programatutako ikuskizun eta tailerren aldetik, adinen arabera.

# IKUSI MIKUSIREN HELBURUAK

- Euskal haur eta gazte literatura, gaur egungo euskal kulturaren ardatz nagusietako bat plazara jalgitzea eta sustatzea, eskolako gazteei, profesionalei eta publiko orokorrari hobeto ezagutzera emateko.
- Euskal herri osoko ikasleak eta profesionalak (eskolen eta profesionalen egunean) eta jendartea (familien egunean) elkartzea eta gurutzatzea, literaturaren inguruan.
- Ume ttikiak, haurrak eta gazteak, irakurtzeko, kondairak entzuteko, hitzekin jolasteko eta idazteko aukerak ematea, euskarazko albuma eta liburuen munduan murgilduz.
- Familian, gurasoak beren seme-alabekin, euskal liburuen inguruan une goxo bat igarotzea, emozioak elkarrekin bizi ditzaten, albumek eskaintzen dituzten irakurketa eta idazketa jolasei esker.
- Euskal herri lurralde osotik, euskal haur eta gazte literaturarekin lotura duten egitura profesionalak elgar ezagutzea eta inplikatzea.
- Euskarazko sorkuntzan murgilduak diren idazle eta ilustratzaileekin, zuzenean topo egitea.

# URRIAK 20, OSTIRALA :

# Eskolen eta profesionalen eguna

**ESKOLEN EGUNA :**

- **1 300 ikasle euskal-herri osotik etorriak (Lapurdi, Baxe-Nafarroa, Xiberua, Gipuzkoa eta Nafarroa).**
- **Ikasle bakoitzari 15€-ko bono bat eskaintzen zaio, gustukoa duen liburua eros dezan. Haur bakoitza etxera sartzen da EUSKAL LIBURU BATEKIN !**
- **Eskola guziek aurretik idatz edota lan grafiko bat sortzen dute.**
- **Obra guztien erakusketa antolatua da bi egunez Sarako mediatekan.**
- **Idazle eta ilustratzaileekin topaketak eta galdezketak (aurretik landuak ikasgelan) antolatuak dira, Kanaldude telebista aurrean grabatuak.**
- **Ikuskizunak, tailerrak eta animazioak egun osoan, ikasleen adinari egokituak eskainiak dira.**

**PROFESIONALEN EGUNA :**

**IKUSI MIKUSI ekitaldiak EKE, BILKETA, E.H.U. rekin elkarlanean haur eta gazte literaturaren berezitasunak eta erronkak ulertzeko egun profesionala eskaintzen du.**

- **Haur eta gazte literaturaren berritasunen aurkezpenak eta profesionalen arteko trukaketa, IKAS eta LIBREPLUMEn eskutik.**
- **GALTZAGORRI elkartearen jardueren, ekimenen eta zerbitzuen aurkezpena.**
- **Sortzaile eta mediaketen arteko topaketa.**
- **EKE-k bultzatutako IBILKI MEDIATEKAK dispositiboaren aurkezpena, Maia Etchandy-ren eskutik.**
- **Haur eta gazte literaturan EUSKALKIEN erabileraren gaiari buruzko mahai-ingurua.**
- **Sortzaile eta argitaletxeen arteko buruz buruko topaketak.**




alki

# URRIAK 21, LARUNBATA : Familien eguna

| 11:00 | 12:00 | 13:30 | 14:00 | 15:00 |
|---|---|---|---|---|
| **FLIPLUF**<br>Alabena konpainia<br>IKUSKIZUNA<br>'30min<br>5 \| Keinu<br>8. orrialdea | **GORRI**<br>Mireia Miracle konpainia<br>IKUSKIZUNA<br>'50min<br>6 \| Sarako plaza<br>6. orrialdea | **LOALDI MUSIKALA**<br>Kiribil konpainia<br>Kontzertua<br>'30min<br>5 \| Keinu gela<br>9. orrialdea | **ZURE AMETSA DANTZAN**<br>Alabena konpainia<br>TAILERRA<br>'50min<br>10 \| Olhain gela<br>11. orrialdea | **KONTU KANTARI**<br>Ines Bengoa<br>TAILERRA<br>'45min<br>3 \| VVF ttikia<br>10. orrialdea |
| **KONTU KANTARI**<br>Ines Bengoa<br>TAILERRA<br>'45min<br>3 \| VVF ttikia<br>10. orrialdea | | **NOMADAK**<br>Teatro Paraiso konpainia<br>IKUSKIZUNA<br>'50min<br>2 \| VVF Haundia<br>7. orrialdea | **BOOKTUBE**<br>Galtzagorri<br>TAILERRA<br>'50min<br>7 \| Suharriaga<br>11. orrialdea | |
| **ZURE LIBURUA SORTU**<br>Daniela Maitia<br>TAILERRA<br>'50min<br>1 \| Lurberri, gela ttikia<br>10. orrialdea | | | | |

## Egun osoan zehar



**TXONTXONGILO ERRALDOIA**
**Kilika konpainia**
Herri osoan
11:00 - 18:00



**ESKOLEN ERAKUSKETA**
**Euskal Herriko ikasleen esku**
8 | Sarako Mediateka
11:00 - 18:00



**TTIPITTOEN XOKOA**
**Sarako haurzainen esku**
5 | Keinu gela
11:00 - 18:00

*Ikusgarriak 5€ | BESTE GUZIA dohainik*

| 16:00 | 16:30 | 17:00 | 18:00 |
|---|---|---|---|
| **IPUIN JOKOAK**<br>Libreplume<br>TAILERRA<br>'45min<br>3 \| VVF ttikia<br>12. orrialdea | **FLIPLUF**<br>Alabena konpainia<br>IKUSKIZUNA<br>'30min<br>5 \| Keinu gela<br>8. orrialdea | **KAMISHIBAI**<br>Mattin<br>TAILERRA<br>'45min<br>9 \| Larrun gela<br>13. orrialdea | **GORRI**<br>Mireia Miracle konpainia<br>IKUSKIZUNA<br>'50min<br>6 \| Sarako plaza<br>6. orrialdea |
| **ZURE LIBURUA SORTU**<br>Daniela Maitia<br>TAILERRA<br>'50min<br>1 \| Lurberri<br>10. orrialdea | **KARIKATURAK**<br>Asisko Urmeneta<br>TAILERRA<br>'45min<br>7 \| Suharriaga<br>12. orrialdea | | |

- + 0 urte
- + 3 urte
- + 6 urte
- + 11 urte




**LIBURU AURKEZPENAK**

**Kanaldudek filmatua eta Maia Muruagak animatua**

1 | Lurberri karpan

10:00 - 17:00

Ikuskizuna

# GORRI

## MIREIA MIRACLE KONPAINIA

**Madrid**

Pailazo bat agertzen da plazan….eta publikoa bere familia bilakatzen da.
Azkenean, ilusioz beterik, pailazoak bere famili berria agurtuko du bidaia batean sartzeko.
Baina bere bidaiak oztopo nagusi bat aurkituko du bidean : MUGA bat !
Askatasunaren ametsa gogoan, pailazoa bere helburua betetzen saiatuko da…

## 12 : 00 & 18 : 00

**+ 6 urte**

6 | Sarako plaza

5€

50 min

mireiamiraclecompany.com



Ikuskizuna

# NOMADAK

## TEATRO PARAISO KONPAINIA

**Araba**

Gutun misteriotsu bat heldu da gelara, eta haurren jakin-mina pizten du.
Bi emakume ezezagunek bidali dute: Sakak eta Tamánek. Baina, zer ote da barruan?

**13 : 30**

**+ 3 urte**

2 | VVF haundia

5€

50 min

teatroparaiso.com



Ikuskizuna

# FLIPLUF

## ALABENA KONPAINIA

**Lapurdi**

Flipluf ikuskizunak norbera ustekabean harritzera gonbidatzen du, bere kuriositateari irekiz, beldurrak gainditzera eta arriskua dastatzera. Metamorfosia baten istorioa da, beldarra pinpirin bilakatzen delarik bezala zorabiarik gabe hegaldatzen ikasten diguna.

## 11 : 00 & 16 : 30

**+ 0 urte**

5 | Keinu gela

5 €

30 min

instagram.com/ciealabena/



Kontzertua

# LOALDI MUSIKALA

## KIRIBIL KONPAINIA

**Lapurdi**

Handi ala ttiki, goxoki etzan edo eseri, entzun eta gozatu : zuzenean musikaren bidez bidaia eder eta goxo bat biziko duzue.



**13 : 30**

**+ 0 urte**

5 | Keinu gela

dohainik

30 min

kiribil.eus

ITHURBIDE — ITURGINTZA – BEROGINTZA – ENERGI BERRIZTAGARRIAK

IXO GARAGARDOA

Tailerrak

# KONTU KANTARI

## INES BENGOA

**Nafarroa**

Txikienek ipuinez gozatzen dute zentzu guztiekin, horregatik kontatu, kantatu eta hitzen bidez jolasten gara haiekin. Hitzez, soinuz eta abestiz osatutako ipuin saioa da hau, gurasoez edo maisuez lagunduta.



**11 : 00 & 15 : 00**

+ 3 urte

3 | VVF Ttikia

dohainik

45 min

inesbengoa.com

# ZURE LIBURUA SORTU

## DANIELA MAITIA

**Lapurdi**

Liburu sorkuntza.
Kolaketa kolorezko papera eta olerki zati batzuk erabiliz, liburu bat sortu !



**11 : 00 & 16 : 00**

+ 6 urte

1 | Lurberri

dohainik

50 min

Tailerrak

## ZURE AMETSA DANTZAN

**ALABENA KONPAINIA**

**Lapurdi**

Deneri irekia.
Mugimendua gai nagusitzat hartuz, ikusmolde sensible eta poetiko bat sortuko da: mundu guziak dantzaarazteko !



**14 : 00**

**+ 6 urte**

10 | Olhain gela

dohainik

50 min

instagram.com/ciealabena/

## BOOKTUBE

**GALTZAGORRI**

**Gipuzkoa**

Liburuak eta sare sozialak harremanetan jarriz, irakuzaletasuna sustatzea helburu duen tailerra da.



**14 : 00**

**+ 11 urte**

7 | Suharriaga etxea

dohainik

50 min

ibbygaltzagorri.eus

Tailerrak

# IPUIN JOKOAK

## LIBREPLUME

Lapurdi

Karakoil ttikiak bizkarrean daramatza ipuinak eta kantu jolasak. Bota dadoa karakoilaren oskolaren itzulia egiteko ! Bertan ipuinak, kantu jolasak baina baita istorioak asmatzeko joko ttipiak ere atzemanen dituzue !



**16 : 00**

+ 3 urte

3 | VVF ttikia

dohainik

45 min

libreplume.fr

# KARIKATURAK

## ASISKO URMENETA

Baxe-Nafarroa

Karikatura : bestearen soa gureganatzeko abentura ! Giro goxoan ! Ariketak laguntzen gaitu ikuspegi kritikoa garatzen, umorearen bidez.



**16 : 30**

+ 11 urte

7 | Suharriaga etxea

dohainik

45 min

instagram.com/_asisko

Tailerrak

# KAMISHIBAI

**MATTIN**

**Gipuzkoa**

Kamishibai irakurketa eta marrazketa tailerra da. Japonian sortutako irakurtzeko teknika baten bidez, egurrezko antzoki bat erabiliz, ipuinak kondatzen dira eta marrazkiak erakusten.



## 17 : 00

**+ 6 urte**

9 | Larrun gela

dohainik

45 min

Collectivité service
SOLUTIONS POUR LE BUREAU

PIXTA BOISSONS C10
64 780 St-Martin-d'Arrossa
Tél. : 05.59.37.74.90 Fax : 05.59.37.76.65 Email : pixta64@orange.fr







HEMEN INFO GUNEA ETA TXARTELAK ATZEMANEN DITUZUE !

TAILERRAK ETA IKUSKIZUNAK




**SARA HERRI GUZIAN IRAGARKI TAULA ETA GEZIAK ATZEMANEN DITUZUE, INFO GUNEA ETA HARRERA LURBERRI GELAN DA. PLAZAN ERE NORBAIT IZANEN DA LAGUNTZEKO !**

SARA

# INFORMAZIO OROKORRA

IKUSI MIKUSI, euskal haur eta gazte literatura ekitaldia, hirugarren aldikotz SARA herrian ospatuko da. Urriaren 20a, ostirala, eskola eta profesionalen eguna izango da, eta urriaren 21a familien eguna.

Azokaren sarrera, tailerrak, mintzaldiak eta liburu aurkezpenak DOHAINIK edo URRIRIK dira.

IKUSKIZUN bakoitzak 5€ balio du.

Txarteltegia Lurberri gunean atzemanen duzue.

Ttipittoen xokoa +0 urte Keinu Gelan atzemanen duzue. Gune hori ñiñientzat egokitua da.

ORONOZ
PINTURA
06 13 80 20 06 | oronoz.jeanlouis@9business.fr | SARA

AINTZINAT
MACONNERIE
NEUF & RENOVATION
Maison Iturri Xola
64310 SARE
Tél 06-26-98-47-57
aintzinat.armand@orange.fr

# FRANÇAIS | CASTELLANO

## FRANÇAIS

**IKUSI MIKUSI est le premier et l'unique SALON LITTÉRATURE JEUNESSE exclusivement en langue basque, regroupant l'ensemble de la société basque de part et d'autre de la frontière. La première édition a eu lieu en 2021 et la troisième édition se tiendra les 20 et 21 octobre prochains.**

**Pendant deux jours, la littérature jeunesse basque est mise en lumière dans l'ensemble du village de SARE, avec toutes les déclinaisons possibles : ventes d'albums et d'ouvrages littéraires, rencontres avec les auteurs-illustrateurs, spectacles vivants, ateliers, tables rondes, débats, etc...**

**La journée du vendredi est dédiée aux scolaires (plus de 1300 élèves de toutes les écoles primaires et collèges de l'ensemble du pays basque) et aux professionnels.**
**La journée du samedi est dédiée aux familles.**

**L'entrée au Salon est gratuite, ainsi que tous les ateliers, les présentations d'ouvrages, les tables rondes. Seule l'entrée aux spectacles est payante, au prix de 5 €.**

## CASTELLANO

**IKUSI MIKUSI es la primera y única FERIA DE LITERATURA INFANTIL y JUVENIL exclusivamente en euskera que reúne a toda la sociedad vasca de ambos lados de la frontera.**
**La primera edición tuvo lugar en 2021 y la tercera edición se realizará los días 20 y 21 de octubre 2023.**

**Durante dos días, la literatura infantil y juvenil vasca se pone de relieve en todo el pueblo de SARA, con todas sus variantes posibles: venta de libros y obras literarias, encuentro con autores-ilustradores, espectáculos, talleres, mesas redondas y debates, etc...**

**El viernes está dedicado a los colegios (más de 1.300 alumnos de todas las escuelas primarias y secundarias del Pais Vasco) y a los profesionales.**
**El sábado está dedicado a las familias.**

**La entrada al Salón, así como a todos los talleres, presentaciones, mesas redondas, etc... es gratuita. Sólo se pagan las entradas a los espectáculos, al precio de 5 €.**

ELIZALDIA ETXALDEA
Loyatho

ARRAYA
★★★★
Hôtel - Restaurant

E.Leclerc
URRUGNE • ST-JEAN-DE-LUZ

Sokoa

BRICOMARCHÉ
MAISON - JARDIN

Agour
IZAN DIRELAKO GARA

HUPI
valoriser analytiquement votre différence

lafitte.
jardinerie

Herriko Etxea
64 310 SARA

+(33) 6 98 12 36 50
ikusimikusi@gmail.com
www.ikusimikusi.eus

## AZOKAKO 3. EDIZIOAREN ANTOLAKETA

Herriko Etxea
64 310 SARA

+(33) 6 98 12 36 50
marigorri.elkartea@gmail.com

Zemoria, 25-behea
20013 Donostia

+(34) 943 471 487
galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus

Polígono Ezkabarte, calle K, 31
31194 Arre (Navarra)

+(34) 948 326 535
web@pamiela.com

## PARTAIDEAK

## ESKERRAK

Aurten ere, Euskal Haur eta Gazte Literatura IKUSI MIKUSI plazara jalgiarazten duten guziak BIHOTZETIK ESKERTZEN DITUGU !
Hala nola Sarako herria eta bere langile tekniko guziak, herriko elkarteen bolondresak, eta gaineratiko laguntzaile guziak !